

BEZEROEKIKO HARREMANA

Bezero berriak erakartzeko sare sozialetan publizitatea erabiliko dugu, hau modu eraginkorra dela uste dugu, erakarri nahi ditugun bezeroak batxilergoko ikasleak direlako, hau da, 16-18 urte arteko pertsonak, eta badakigu, hauek Instagram, Twitter edo horrelako plataformetan presentzia handia dutela eta han errazago ikusiko dute gure publizitatea beste toki batean baino.

Gure aplikazioak bezeroei gure irakasleekin zuzenean kontaktuan jartzeko aukera ematen die, txataren bidez egin dezakete. Hala ere, arazorik balego edo aplikazioari buruzko kexarik, aplikazioaren koordinatzaile eta sortzaileekin, hau da, gurekin, kontaktuan jartzeko ahalmena ematen diegu gure posta elektronikoaren bitartez. Guztiz automatizatuta egongo da, nahi den lekutik eta pantaila baten bitartez kontaktatuko da, eskaintzen dugun modurik zuzenena, aurrez aurrekoa da baina, webcam-aren bidez.

Aplikazioa mugikorrean eta ordenagailuan (aplikazioa deskargatuz) izan daiteke eta horrela ikasle bat etxetik kanpo badago eta apunteak ikusi nahi baditu mugikorraren bitartez ikus ditzake, azken finean gazte guztiek mugikor inteligenteak dituzte. Horrela, gure aplikazioa nahi duen edonorentzat eskuragarri egongo da.

Ikasleek aplikazioa hau izateko gure app-a deskargatu behar dute eta horrek hilean 3€-ko kostua du. Aplikazioa deskargatuta dutenean irakasleekin bideo-deiak egin ditzazke klase partikularrak izateko 7€-ren truke eta pack-ak erosi datzazkete (gaia gehi kontsulta) 5€-ren truk.